

Langabezia-tasa %11,4ra jaitsi eta okupatuak %0,7 gehitu Euskal AEn 2017ko lehen hiruhilekoan


Langabezia-tasa ehuneko hiru puntu pasa jaitsi da azken urtean

Euskal AEko lan-merkatuko 2017ko lehen hiruhileko datuen arabera, okupatuak 909.400 ziren, aurreko hiruhilekoan baino 6.600 gehiago, (%+0,7), Eustaten datuen arabera. Langabezia-tasa, %11,4; 2016ko laugarren hiruhilekoaren aldean ehuneko 1,2 puntu gutxiago.

Okupatuen eta langabeen bilakaeren ondorioz, jarduera-tasa %56 da 2017ko lehen hiruhilekoan, aurrekoan baino ehuneko lau hamarren azpitik.

Gizonei eragin die batik bat okupazio-handitzeak, aurreko hiruhilekoan baino 4.400 gehiago dira; emakumeak 2.100 gehiago. Bizkaian 3.300 okupatu gehiago; Gipuzkoan 2.600; Araban 600.

Euskal AEko 16-64 urte bitarteko biztanleen okupazio-tasa, sexuaren eta hiruhilekoaren arabera (%)



Iturria: Eustat. Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkesta

Industrian gehitu da gehien okupazioa

2017ko lehen hiruhilekoan 191.100 okupatu industrian, +3.600 aurreko hiruhilekoaren aldean, sektore-hazkunde handiena. Zerbitzuetan +2.400 eta lehen sektorean +800. Eraikuntzan -200.

Okupazio-tasa, 16tik 64 urtera bitarteko biztanle-kopuruaren gainean landunen ehunekoa, %65,8, aurreko hiruhilekoan baino hamarren bat gehiago. Gizonentzat %69,3; emakumeentzat %62,4.

Okupazio-tasarik altuena, Gipuzkoak, %67,6, aurreko hiruhilekoaren aldean ehuneko 0,5 puntu gehiago; Arabak %66,3 (2 hamarren gutxiago); Bizkaia (%64,6) lehengoan.

Pertsona aktibo guztiak okupatuta dauden familia-etxe gehiago eta denak langabezian dituztenak gutxiago

2017ko lehen hiruhilekoan, Euskal AEko 877.500 (zenbatetsia) familia-etxeetako heren batean ez dago pertsona aktiborik. Erdia pasatxoan pertsona aktibo guztiak okupatuta daude, aurreko hiruhilekoan baino 10.000 familia gehiagotan; pertsona aktibo guztiak langabezian dituztenak 39.800 dira, aurreko hiruhilekoan baino 10.400 gutxiago.

Langabezia, %11,4; aurreko hiruhilekoan baino puntu bat eta bi hamarren gutxiago.

Langabeak, hots, lan bila aritu, bilatzeko kudeaketa aktiboak egin eta gainera lanerako prest daudenak, urteko lehen hiruhilekoan 117.000 direla zenbatetsi da, aurreko hiruhilekoan baino 13.100 gutxiago. Gizonezko langabeak, 55.700, 10.700 gutxiago. Emakumezkoak 2.400 gutxiago, 61.300.

2017ko lehen hiruhileko datuen arabera, langabezia-tasa %11,4 da, aurreko hiruhilekoan baino ehuneko 1,2 puntu gutxiago. Gizonen langabezia, %10,4ra jaitsi da (ehuneko 1,9 puntu gutxiago); emakumeena 0,4 puntuz jaitsi, %12,5era. Gazteen langabezia-tasak altuena izaten segitzen du, %23,2 (ehuneko 1,6 puntu gutxiago); 16-24 urte bitarteko 9.600 gazte aktibo langabezian.

Langabe-jaitsierarik handiena, Bizkaian (-7.300); langabezia-tasa, %12,7, aurreko hiruhilekoan baino 1,3 puntu gutxiago. Gipuzkoan %9,3ko tasa (-1,8 puntu) ; langabe kopuruan 6.300 pertsona gutxiago, 31.000 gutzira. Araban 600 langabe gehiago aurreko hiruhilekoaren aldean; langabezia-tasa %11,3, hiru hamarren gehiago.

EUROSTATen arabera (Europar Batasuneko Estatistika Bulegoa), 2017ko otsailean, 28-EBko langabezia-tasa %8, Espainiakoa %18.

Azken urtean okupatuak gehitu eta langabeak jaitsi

Euskal AEko biztanle okupatuak 14.400 pertsona gehiago, 2016ko lehen hiruhilekoaren aldean. Gizonei eragin die batik bat okupazio-handitzeak, 9.100 gehiago; emakumeen kasuan, 5.200 gehiago.

Langabezia-tasa ehuneko 3,1 puntuz jaitsi da (%14,5etik %11,4ra). 2016ko lehen hiruhilekoan baino 34.400 gutxiago Euskal AEn.

NLEren irizpidearen arabera, hiruhileko batez besteko bazkidetuen %97,9 okupatuta dago

Euskal AEn 844.600 hiruhileko batez besteko bazkide daudela zenbatesten da, inkesta garaian Euskal AEko biztanle eta Gizarte Segurantzako bazkide. Haien arteko %97,9 okupatuak dira Nazioarteko Lan Erakundearen (NLE) irizpideen arabera, zeinak baitira BJAk darabiltzanak; 827.200 lagun.

BJAren NLE okupatuak %8,1 ez dira Gizarte Segurantzako bazkide (73.500) Euskal AEn kokatutako enpresetan, izan daitezkeelarik funtzionarioen mutualitate publikoetakoak, beste erkidegoetako enpresetakoak edo bestela.

Langabeen %29,6 ez daude langabe gisa erregistraturik Lanbiden

Euskal AEn 121.800 langabe daudela zenbatesten da, batez beste eta Lanbiden erregistraturik; alegia, Euskal AEn bizi eta inkestaren garaian Lanbiden erregistratuta langabe kategoriaren batean. Haietatik %64,4 langabeak dira NLEren definizioaren arabera. (78.500 langabe). BJaren NLE langabeen %29,6 ez daude erregistratuta Lanbiden langabe gisa (34.600 pertsona), baina baliteke beste kategoriaren batean egotea.

Euskal AEn biztanleria jardueraren arabera (1). 2017/I

	2017/I	2016/IV	Aldakuntza, aurreko hiruhilekoaren aldean	
	Milakoak	Milakoak	Milakoak	%
16 URTE ETA GEHIAGOKO BIZTANLERIA	1.833,9	1.833,0	+0,9	0,0
AKTIBOAK	1.026,3	1.032,9	-6,6	-0,6
Gizonak	534,2	540,6	-6,4	-1,2
Emakumeak	492,1	492,4	-0,3	-0,1
Araba/Álava	155,5	154,2	+1,3	+0,8
Bizkaia	537,1	541,1	-4,0	-0,7
Gipuzkoa	333,8	337,6	-3,8	-1,1
BIZTANLERIA LANDUNA	909,4	902,8	+6,6	+0,7
Gizonak	478,5	474,1	+4,4	+0,9
Emakumeak	430,8	428,7	+2,1	+0,5
Araba/Álava	137,8	137,2	+0,6	+0,4
Bizkaia	468,7	465,4	+3,3	+0,7
Gipuzkoa	302,8	300,2	+2,6	+0,9
Nekazaritza, abeltzaintza, arrantza	10,3	9,5	+0,8	+8,4
Industria	191,1	187,5	+3,6	+1,9
Eraikuntza	47,6	47,8	-0,2	-0,4
Zerbitzuak	660,4	658,0	+2,4	+0,4
Soldatakoak	724,1	719,1	+5,0	+0,7
- Kontratu mugagabea dutenak	521,5	515,4	+6,1	+1,2
- Aldi baterako kontratuarekin eta kontraturik gabe	202,7	203,7	-1,0	-0,5
Ez soldatakoak	185,2	183,7	+1,5	+0,8
LANGABEAK	117,0	130,1	-13,1	-10,1
Gizonak	55,7	66,4	-10,7	-16,1
Emakumeak	61,3	63,7	-2,4	-3,8
16 - 24	9,6	9,5	+0,1	+1,1
25 - 44	58,5	70,0	-11,5	-16,4
45 eta gehiago	48,9	50,5	-1,6	-3,2
Araba/Álava	17,6	17,0	+0,6	+3,5
Bizkaia	68,4	75,7	-7,3	-9,6
Gipuzkoa	31,0	37,3	-6,3	-16,9
EZ-AKTIBOAK	807,6	800,0	+7,6	+1,0
ETXEBIZITZAK	877,5	877,3	+0,2	+0,0
Aktibo 1 edo gehiagoko etxebizitzak	593,2	593,0	+0,2	+0,0
- Guztiak okupatuak	501,0	491,0	+10,0	+2,0
- Guztiak langabeak	39,8	50,2	-10,4	-20,7
Aktiborik gabeko etxebizitzak	284,4	284,3	+0,1	+0,0

(1) Aurtengo urtearen datuak behin-behinekoak dira eta aurreko urtekoak ikuskatu dira urte horretako urtarilaren oinarri 1ekiko populazioaren gaurkotzearekin

Iturria: Eustat. Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkesta

Biztanleria jardueraren arabera. Tasa nagusiak (1). 2017/I

	2017/I	2016/IV	Aldakuntza, aurreko hiru hilabetearen aldean (e.p. *)
JARDUERA-TASA	56,0	56,4	-0,4
Gizonak	60,5	61,3	-0,8
Emakumeak	51,8	51,8	+0,0
Araba/Álava	57,5	57,2	+0,3
Bizkaia	55,5	56,0	-0,5
Gipuzkoa	56,0	56,6	-0,6
BETETZE-TASA (16-64 urte bitarte)	65,8	65,7	+0,1
Gizonak	69,3	68,9	+0,4
Emakumeak	62,4	62,5	-0,1
Araba/Álava	66,3	66,5	-0,2
Bizkaia	64,6	64,6	+0,0
Gipuzkoa	67,6	67,1	+0,5
LANGABEZIA TASA	11,4	12,6	-1,2
Gizonak	10,4	12,3	-1,9
Emakumeak	12,5	12,9	-0,4
16 - 24	23,2	24,8	-1,6
25 - 44	11,6	13,8	-2,2
45 eta gehiago	10,2	10,4	-0,2
Araba/Álava	11,3	11,0	+0,3
Bizkaia	12,7	14,0	-1,3
Gipuzkoa	9,3	11,1	-1,8
EZ-AKTIBOTASUN TASA	44,0	43,6	+0,4

*e.p. = Aldea, ehunekotan

(1) Aurtengo urtearen datuak behin-behinekoak dira eta aurreko urtekoak ikuskaratu dira urte horretako urtarilaren oinarri 1eko populazioaren gaurkotzearekin

Iturria: Eustat. Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkesta

OHAR METODOLOGIKOA: 2016ko datuak berrikusi dira 2016ko urtarilaren 1eko biztanleria oinarri harturik lortutako proiektioetatik.

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62

Euskal AEn Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkestari buruzko prentsa-ohar gehiago (BJA)

Euskal AEn Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkestari buruzko datu-bankua (BJA)